

BIHAR

JOSEPH CONRAD

JATORRIZKO TITULUA: TOMORROW

© Marjinalia Bilduma

© Xabier Galarreta

2. edizio zuzendua eta hobetua

1998. urtea (urtarrila)

Legezko Gordailua: SS-251/99

BIHAR

Kolebrook-eko portuan Hagberd kapitainaz zekitena ez zen Kapitainarentzat bat ere mesedegarria, ez horixe. Kapitaina ez zen bertakoa. Leku hartan finkatzera bultzatu zuten gora-beherak ez ziren inolaz ere misteriotsuak —garai batean oso komunikakorra izan ohi zen— baina bai makalak eta arrazoigabeak. Dirurik bazuen, ageri zenez, zeren lursail bat erosi baitzuen, eta adreilu hori-koloreko bi etxetto itsusi eraiki zituen asko gastatu gabe. Etxe horietako batean bera bizi zen. Beste etxea, berriz, Josiah Carvil-i errentan eman zion —Carvil itsuari, untzigilea izandakoari (gizon garratza izaeraz, eta beraz, ospe txarreko gizona).

Etxe txikion artean horma bat zegoen, eta aurreko lorategiak eskuleku bat zela medio bereizten ziren; zurezko hesi batek banatzen zituen atzealdeko lorategiak. Bessie Carvil andereñoari zilegi zitzaion —hori egiteko eskubidea izango balu bezala— te-zamauak, urdin-koloreko trapu zaharrak eta amantalak bertan lehortzen jartzea.

—Zura ustelduko da, Bessie, neskato —egiten zion errieta Kapitainak maitakor, hesiaz bestaldetik, neska eskubide hori erabiltzen ikusten zuen bakoitzean.

Neska garaia zen; hesia, berriz, txikia. Beraz, ez zen zaila ukondoak hesiaren gainean bermatzea. Arropak ikuzi eta gero, eskuak gorriturik izaten zituen. Hala ere, neskaren besagainak zuriak eta ondo eginak ziren. Aitaren etxajabeari begira geratu ohi zen, isilik —ezagutza, itxaropena eta desioa bezalakoa zen isiltasun biziz.

—Zura ustelduko da, Bessie, neskato —esaten zuen berriro Hagberd kapitainak. —Hori da zugan ikusi dudana ohitura txar, gaitzesgarri bakarra. Atzeko patioan soka bat jarri beharko zenuke, arropa bustiak zintzilikatzeko.

Oro har, Carvil andereñoak ez zion ezer erantzuten —soilik buruari eragiten zion, ez zuela nahi aditzera emanez—. Neskari tokatu zitzaion patio txiki-txikiak lur beltzeko geriza karratuak zituen, eta astialdietan landaturik zeuzkan loreak ohi-ez-bezalako tamainakoak izaten ziren, lurralde arrotzen batetik ekarriak balira bezala edo. Hagberd kapitainaren gizairudi tente eta sendoa, burutik oinetara olana arrun batez jantzita, belar oparo eta sasi artetik agertzen zen belaunetik gora, hesiaz bestaldean. Jantzea aukeratu zuen soineko harrigarriaren kolorea eta zurruntasun truskila ikusita —«oraingoz» ihardetsi ohi zion marmarti kontuari buruzko edozein azalpeni—, granitoan landutako gizona zirudien (behar bezalako bilargela baterako adina toki ez zeukan basamortuan zutik). Harrizko gizon baten irudia zen, gorri-koloreko aurpegi ederrekoa, begi urdin eta ameslariak, eta noski, gerriraino iristen zitzaion bizar zuri eta itzela —Kolebrooken esaten zenez, sekula apaindu ez zuena.

Zazpi urte lehenago, Kapitaina portu ondoko Ostatu Berrin sartu zen ontza bat tabako erosteko. Han, ez-nolanahiko patxadan eserita zegoen Kolebrookeko bizargin xelebreaekin suertatu zen. Bezero berri bat lortzeko ahaleginetan, oraindik oso luzea ez zen bizarra zela-eta bizarginak egin zion trufari «hurrengo hilabetean, uste dut» erantzun zion Kapitainak serio-serio. Alkandoraren eskumutur batean zekarren eskuzapiaren adarretik ateratako hiru penny eta erdiz erositakoa ordaindu eta gero, Hagberd kapitaina atera zen. Atea itxi bezain laster, bizarginak barreari eman zion:

—Gutxi barru, zaharra eta gaztea besotik hartuta sartuko zaizkit bizartegian. Jostunak lanean hasi beharko du, baita bizarginak eta ezkogileak ere; garai zaharrak laster dira Kolebrook-en, laster, zalantzarik gabe. «Hurrengo astean» izaten zen. Orain, berriz, «hurrengo hilabetean». Hola jarraituz gero, «hurrengo udaberrian» izan beharko da, oker ez banago.

Imintzio huts batekin entzuten ari zen kanpotarrari erreparatuz, bizarginak —nagiak lotsagabe ateraz— adierazi zuen, ezen, Hagberd zahar eta xelebrea, pleitari erretiratua bera, semea noiz itzuliko zain zegoela. Mutilak etxetik alde egin baitzuen —harritzekoa ez zena—. Itsasora alde egin zuen eta ordutik ez zuten haren berririk izan. Ordurako, itsas hondoa egongo zen ziur. Hiru urte lehenago, dolua zekarrela (emaztea arestian hil zitzaion), agurea ia-ia korrika heldu zen Kolebrook-era, deabrua atzetik balebilkio bezala, zigarrozaleentzako hirugarren mailako bagoi batetik jauzi eginez; zekarren gauza bakarra eskutitz bat zen —txantxetakoa ziuraski—. Adarjoleren batek Kolebrook-en edo inguruetan neska baten atzetik omen zebilen izen bereko marinela baten berri eman zion. «Barregarria, ezta?» Izan ere, agure gizarajoa Londresko egunkarietako iragarkietan Harry Hagberdez galdezka aritu zen, eta sariak ere eskaini zituen edozein motako informazioren truke. Gero, bizarginak aurpegi gaiztoaz kontatzeari ekin zion, ezen, dolua zekarren kanpotarra nola ikusi zuten lurraldea esploratzen, gurdiz, oinez, bere arazoez mundu guztia jakinaren gainean jartzen, milia luzeetara zeuden ostatuak eta garagardotegiak bisitatzen, bidean suertatutakoei galderak egiten, ia-ia bideko bazterretan ere begiratzen; hasieran, berotasunik handienaz; gero, ahalegin iraunkor antzeko batez, gero eta etsituago. Berak, aldiz, semea nolakoa zen ezin zizun argi eta garbi esan. Ustezko marinela, zur-untzi bat utzi zuten bietariko batek izan behar zuen, neska baten atzetik ikusi omen zuten itsasgizona hain zuzen; agureak, ordea, hamalau urteko mutil kozkor baten deskribapena ematen zuen —«ikastun itxurakoa, bihotz handiko mutila»—. Hori entzunda, jendeak, noski, irri egiten zionean, agure gizarajoak bekokiari hatz egin eta hanka egiten zuen, mingor eta pot eginda. Ez zuen inor aurkitu, ez, noski; inoren arrastorik ez —mereziko zuen ezer ere ez zuen inoiz entzun—; baina Kolebrook-etik alde egiteko adorea ez zuen izan nonbait.

—Oso atsekabe handia hartu omen zuen. Gainera, emaztea arestian hil zitzaion... Beharbada, jarraian etorritako kolpeek zoratu egin zuten —iradoki zuen bizarginak psikologo zorrotzarena eginez—. Handik gutxira, agureak bilatzen jarraitzeari utzi zion. Semea, ageri zenez, alde eginda zegoen. Hala ere, agurea bertan finkatu zen semearen zain. Semea Kolebrook-en gutxienez behin izan zen, hau da, gure herriari lehentasuna eman zion, haren jaioterriari eman ordez. Kapitainak pentsatu omen zuen, ezen, horrela jokatzeko arrazoiren bat, pizgarri boteretsuren bat izango zuela. Eta arrazoi horrek, agian, Kolebrook-era ekarriko zuela berriro.

—Ja, ja, ja! Nolatan ez, noski, Kolebrook-era. Nora, ba, bestela? Erresuma Batuan hauxe da aspaldiko seme galduentzako toki bakarra. Beraz, Koltxesterreko etxea saldu eta hona etorri zen bizitzera. Tira, zorakeria hutsa da, beste zorakeria asko diren bezala. Zoratzen ez ninduten ikusiko nire mutikoetatik batek etxetik ihes egingo balu: etxean zortzi ditut-eta!—. Bizargina bere zorrotzasuna erakusten ari zen taberna astintzen zuten barre-algaren artean.

Dena den, guztiz harrিতa onartu beharra zeukan —goi mailako adimenek soilik duten xalotasunaz—, halako gauzak kutsakorrak izan ohi zirela. Bizartegia, esaterako, portutik hurbil zegoen. Eta ilea mozteko edo bizarra kentzeko, marinela bat sartzen zen bakoitzean, arrotz aurpegikoa baldin bazen, ezin zion eutsi pentsatzeari, «Demagun hau dela Hagberd zaharraren semea!». Horregatik, bere buruaz barre egiten zuen. Zorakeria handia zen. Herrian beste ezertaz mintzatzen ez zeneko garaiaz oraindik oroitzen zen. Hala ere, itxaropenik bazuen agurearengan. Txantxa zentzudun-sistema bat erabiliz sendatu egingo zuen. Sendabideak izan-beharreko aurrerapenak noiz ikusiko zain zegoen —hurrengo hilabetea... hurrengo urtea...—. Patroi zaharrak itzuleraren eguna hurrengo urterako jarriz gero, kontuaz hitzik ez aipatzeko bidean egongo litzateke. Beste zentzu askotan normaltasun osoz jokatzeko zuzenak, zentzu horretan ere bide onera

itzuliko zen. Halakoa zen, behintzat, bizarginaren iritzia.

Sekula ez zion inork aurka egin; ordurako, ilea gris bilakatuta zuen, eta Hagberd kapitainaren bizarra zuri-zuri zegoen, eta olana arruntezko jantziari esker errege-itxura hartu zuen. Jantzia hark berak egin zuen bikeztaturiko hariak erabiliz, denen ezkutuan. Ustekabean, goiz eder batean, soineko bitxia jantzita kalera atera zen (aurreko gauean beltzez jantzita ikusi omen zuten, beti bezala, etxera zihoala). Kale Nagusian sentsazio handia eragin zuen —dendariak dendetako ateetara ateratzen ziren, etxeetan jendeak kapela jantzi eta korrika batean kaleratu zen—. Berak sortutako nahaste-borrastearen aurrean, zinez harrিতuta eman zuen hasieran; eta gero, guztiz ikaratuta. Aho zabalik galde egiten ziotenei eman zien adirazpen bakarra, ordea, «oraingo» izukor eta iheskor bat besterik ez zen izan.

Gertatutakoa, azkenik, ahaztua izan zen; Hagberd kapitaina bera guztiz ahaztuta gelditu ez bazen ere, handik gutxira oharkabe pasatzen hasi zen, egunerokotasunak ezartzen duen zigorrari ez baitio inork ihes egiten (eguzkia bera ere ohargabe pasako litzateke, bere boterea indarrez erakutsi izan ezik). Hagberd kapitainaren mugimenduek ez zuten inolako ahuleziarik erakusten: tente baino tenteago ibiltzen zen bere olanazko jantzian sartuta, hura bai gizon xeble eta nabarmena! Begiak, ordea, lehen baino iheskorragoak zituen. Jendeari lehen erakusten zion jarrerak mesfidantza urduria galdu zuen, lotsati eta mesfidati bihurtu zen, bere buruaren nonbait zerbait konprometagarri, harrokeria trabagarrikeri zegoela igarri balu bezala. Hala ere, zer deabru ez zegoen ongi ez zen inoiz aurkitzeko gai izan.

Herriko jendearekin hitz egiteko gogo urria erakusten zuen. Zikoitz izugarria zelako ospea, eguneroko gastuekin zeken handia zelako entzutea irabazita zeuzkan. Dendetan marmarka aritzen zen mingots, duda-mudatan luzaro egon ondoren jakirik dindirrenak erosten zituen, eta soinekotzat janzen zuen koko-jantziari buruzko edozein azalpeni ihes egiten zion. Bizarginak iragarri zuen bezalaxe gertatu zen. Antza zenez, itxaropeneko minetik sendaturik zegoen; Carvil andereñoak, berriz, bazekien Kapitainak zergatik ez zuen ezer aipatzen semearen itzuleraz: orain «hurrengo astea», «hurrengo hilabetea» edo «hurrengo urtea» ere ez zen kontua. Orain, kontua «bihar» zen.

Atzealdeko patioak eta aurrealdeko lorategiak ematen zien mamitasunean, neskarekin konta-kontari ari ohi zen aitatiar, zentzudun eta dogmati —erabiltzen zuen aginte-ahotsa ahaztu gabe—. Biek erabateko konfiantzaz ekiten zioten elkarrizketari, eta kapitainak konfiantza hori baieztatzen zuen begi-keinuka. Hasieran, begi-keinu horiek txunditurik uzten zuten Carvil andereñoa: gizarajoa burutik eginda zegoen. Aurrerago, begi-keinuez barre egiten ikasi zuen: eroa ez zen arriskutsua. Orain, berak bazekien onartu gabeko hunkipen atsegin eta sinesgaitz bat besterik ez zutela adierazten, eta hala frogatzen zioten Kapitainaren lotsaldi arinek. Begiez keinu egiten zion, zakarki ez baina: Kapitainaren aurpegi zimel eta gorriak, ondo landuriko sudur-konkorrekoak, bazuen bikaintasun berezirik —are gehiago: neskari hitz egiten zionean, begirada tinkoago eta adimentsuago bilakatzen zitzaion. Gizon sendoa, itxura onekoa, bene-benetakoa, gizona, zuri-koloreko bizarduna... Ez zuen merezi zenbat urte izango zituen pentsatzea. Semeak, baieztatzen zuen agureak, haren antz harrigarria izan zuen txikitatik bertatik.

Harryk hogeita hamar urte beteko zituen hurrengo uztailean, aldarrikatzen zuen agureak. Etxe on bat preziatzeko gauza izango zen neska atsegin, sentibera batekin ezkontzeko adin aproposa. Bihotz handiko mutila zen. Bihotz handiko senarrak hoberenak ziren ezkontzeko orduan. Gizarajo belaxkak, ardiak bezain otzanak diruditenak, dira emakume bat zeharo mixerable bihurtzen lehenak. Gainera, etxea bezalakorik ez dago... Sutondoa, teilatu on baten babesa. Eguraldi txarra egiten badu, ohetik jaiki-beharrik ez izatea «ez dago bat ere gaizki, ezta, maitea?».

Marinel batzuek beren barruko deiari jarraitzen diote lehorra bistatik galdu gabe. Hagberd kapitaina tankera horretako itsasgizona izan zen. Seme-alaba asko izan zituzten zorrez jositako baserritarren semea, itsasbazter-patroi-ikasketak ahalik eta azkarren amaitu eta itsasbazterrean igaro zuen marinel-bizitza osoa. Hasieran, oso gogorra izango zen harentzat: ez zen inoiz moldatu bizimodu hartara; etxe zenbatuezinez beteriko lehorrerantz, sutondoan bilduriko gizaki gozoenganantz begiratzen zuen maitasun osoz. Marinel askok sentitzen dute eta izaten dute itsasoarekiko zilegizko ezinikusia. Kapitainak, ordea, gorroto sakon eta hunkigarria zion itsasoari —lur finkoarekiko maitasuna belaunaldi luzeetatik baletorkio bezala—. «Jendeak ez daki itsasoratzea zer den. Bestela, ez liekete semei utziko halakorik egiten», azaltzen zion Bessieri. «Askoz hobe preso sartuko balituzte». Ez zizukeen sinetsiko, itsasoa maite zenuela esan bazenien. Zahartu ahala, marinel-bizimoduaren nekeak gero eta jasangaitzagoak egiten dira. Denbora gehienean oina etxean jartzea eragozten dizun ogibidea, zer-nolako ogibidea da, bada? Itsasoratu bezain laster, zurean zer gertatzen den jakiterik ez dago. Urruneko bidaiak egiteaz asper eginda zegoela pentsa zitekeen; hark egindako bidaiarik luzeenak, ordea, bi astetik gora ere ez zuen iraun, eta kasu horretan ainguraturik pasatu zuen denborarik gehiena, eguralditik babestuta. Ikatz-negozioei esker diru dezente pilatu zuen osaba ezkongabe bat hil zenean, haren emazteak etxe bat eta bizitzeko nahiko diru hartu zuen oinordetzan. Eta berehala, Hagberd kapitainak eki-kostaldeko ikatz-untziaren aginteari uko egin zion (eta hala egin zuenean, arraun-zigorretatik onik atera balitz bezala sentitu zen). Geroztik, hatzekin zenbat zitezkeen Ingalaterra bistatik galdu zitueneko egunak. Zundaz kanpo egotea ere zer ote zen ez zekien. «Lehorretik zortzi beso baino urrunago, ni ez naiz sekula izan», eta horrek harro-harro egoteko bidea ematen zion.

Bessie Carvilek gauza horiek guztiak entzuten zituen. Etxe aurrean garaiera txikiko lizar bat hazten zen; udako arratsaldeetan, neska lorategira atera eta jostotzara magalean esertzen zen. Hagberd kapitaina, olanazko jantzian sartuta, aitzurrean bermatzen zen. Egunero aitzurrean ari ohi zen, aurreko lursailean. Urtean hainbat aldiz, lurra harrotzen zuen nekaezin; «oraingoz», ordea, ez zihoan ezertxo landatzera.

Bessie Carvilekin zehatzagoa izan ohi zen: «Harry maitea bihar etxeratu arte, ez dut ezer landatuko». Neskak hamaika aldiz gauza bera entzunda zuenez, azkenik urriki antzeko zerbait hartu zion agure itxaropentsuari, modu lainotsuan baina.

Horrela, kontua egun batetik bestera luzatu zen. Hortaz, den-dena prestaturik zegoen biharko. Haziz beteriko kaxak prest zeuden, aurreko lorategian landatzekoak. «Noski, maitea. Nire mutilak nahi dituzunak landatzen utziko dizu», jakinarazten zion Kapitainak hesitik.

Bessie andereñoak josten jarraitzen zuen, burua makur. Hori guztia hamaika aldiz entzunda zeukan. Hala ere, batzuetan aulkitik altxatu, jostotzara utzi eta hesi aldera hurbiltzen zen poliki-poliki. Eldarnio atsegin hartan, egon ere, bazegoen xarmarik.

Agureak erabaki bat trinko hartuta zeukan: etxerik ezagatik semeak ez zion gehiago alde egingo. Etxea mota guztietako altzairuz betetzen ihardun zuen. Neskak etxea gauza berri-berriz beteta zegoela uste zuen, bernizari esker den-dena dirdaitsua eta biltegieta bezala pilatuta gauzak: izara zuriekin bilduriko mahaiak, habe-zatiak bezalako tapiz lodiko eta tenteko bilguak, marmolezko baldosen dizdira, gortina bikainak... Beti, Hagberd kapitainak zehatz-mehatz azaltzen zizkion erosketak —neskak erosketa horiekin zerikusia izango balu bezala—. Landarediak ezkutatutako etxeko lursaila zementuz estaliko zuen... etzi.

—Nahi izanez gero, hesia kenduko dugu. Eta arropak zintzilikatzeko soka ere izango duzu, zure loreetatik urrun, noski.

Kapitainak begiez keinu egiten zion, eta neska arin gorritzen zen.

Bessieren eskuzabaltasunari esker, haren bizitzan sartutako erokeriak bazuen zehaztasun arrazonagarriarik. Zer gertatuko litzateke agurearen semea noizbait itzuliko balitz? Dena dela, semea inoiz izan zenik ere ziur jakiterik ez zegoen. Eta noizbait izatekotan, luzaroegi zeraman kanpoan. Hagberd kapitaina bero-bero hitz egiten hasten zenean, neskak lasaitzen zuen sinesten zuelako itxura eginez —bihotz-zimikoeak bultzatuta, barre piska bat egiten bazuen ere.

Behin bakarrik saiatu zen zalantza piska bat jaurkitzen beti etsipenean galduta ibilitako itxaropen haren gainera. Ekinaldiaren ondorioek, ordea, guztiz beldurtu zuten. Bat-batean, ikara eta sinesgogorkeria islatu ziren gizonaren aurpegian, zeruan zirrikituren bat ikusi izan balu bezala.

—Zuk-zuk-zuk ito zela uste al duzu?

Une batez, neskak pentsatu zuen agurea zoratzeko zorian zegoela, zeren neskak jendeak baino uste hobea baitzuen agurearen buruzko osasunari buruz. Zorionez, hasierako hunkipen-uneak pasata, aita moduko jokaera atseginak bereganatu zituen berriro.

—Ez kezkatu, maitea —esan zuen apur bat maltzur—. Itsasoak ez dauka zer eginik nire semearen kontra. Nire semea ez da itsasoarena. Hagberdarrok ez gara inoiz itsasoarenak izan. Begira niri: ni ez nintzen ito, ba. Gainera, bera ez da marinela, ezta pentsatu ere. Beraz, marinela ez bada, nahitaez itzuli beharko du. Ezerk ez dio eragotziko etxeratzea...

Agurearen begirada galtzen hasi zen.

—Bihar.

Hartaz geroztik, neskak ez zuen horrelakorik saiatu, gizona unean bertan zoratuko zen beldurrez. Agurea neskaren eskuetan zegoen. Bazirudien, ezen, herriko pertsona sentibera bakarra Bessie zela. Agureak bere buruari zorionak ematen zizkion neskaren aurrean, semearentzako halako emazte zentzuduna lortu izanagatik. Behinola, humore txarrez zegoela, neskari aitortu zion, ezen, herriska osoa zela ohiz kanpokoa. «Modu bitxian begiratzen didate, eta hitz egin ere modu bitxian hitz egiten dute». Bertako inorekin ez zuen harreman onik. Jende hura ez zitzaion gogoko. Semea Kolebrook inguruan zebilela jakin ez balu, ez zukeen sorterrria utziko.

Agureak esaten zuen guztiari baietz erantzuten zion neskak eta egonarri amaigabeaz entzuten zion hesitik, begiak erdi-itxita gakorratzean. Neskaren gorputz-koloreko azal zurbilean, lotsaldiak bakanak izaten ziren (gainera, kaoba-koloreko ile oparo eta txirikordatuaren azpian ezkututzen zuen aurpegia).

Bessieren gorputza apur bat lodia zen; aurpegia nekatuta eta apur bat zaharkituta zeukan (nahiz bera oso gaztea izan). Hagberd kapitainak etxearen beharra eta onura, supazter onaren deliziak goستن zituenean, neskak apur bat irri egiten zuen —bakarrik ezpainekin—. Bessiek bere bizitzako urterik hoberenetan izan zituen etxeko delizia bakarrak haren aita zaintzera mugatu ziren.

Goiko leiho batetik ateratako orro basatiak eten zien elkarrizketa. Orduan, neska gakorrantz-lana biltzen eta jostotzara gordetzen hasten zen berehala, lehia keinurik txikiena erakutsi gabe. Bien bitartean, aiuriek eta orroek Bessie izena oihukatzen segitzen zuten, uhinurrategitik —bidearen beste aldean— paseatzen ari ziren arrantzaleen buruak etxettoetara itzularaziz. Neska etxeko atetik geldiro sartu eta handik gutxira isiltasun sakon batek alderdi osoa bereganatzen zuen. Aurki, eskutik gizon bat hartuta agertzen zen berriro —gizona hipopotamoa bezain lodia eta astuna, jeginu txarrekoa eta aurpegi zakarrekoa.

Untzigitik alarguna zen. Zuela urte asko, negozioak ezin hobeto zihoazkionean, itsu geratu zen. Alabarekin joketzen zuen gaixotasun sendaezinen erruduna hura

izango balitz bezala. Bere indar guztiekin oihuka, zeruari berari aupada eginez, itsua izateak bost axola ziola entzun zioten noizbait: eguneroko gosarian, urdaiazpikoa eta arrautzak izateko adina diru irabazita zeukan. Hargatik, Jainkoari eskerrak ematen zizkion. Erabiltzen zuen deabruzko ahotsa entzunda, hala ere, edozeinek pentsa zezakeen biraoka ari zela.

Etxetiar honek oso adar txarra eman zion Hagberd kapitainari, eta Bessie andereñoari hala jakinarazi zion: «Oso tipo arraroa da, maitea».

Egun hartan, neskak puntu egitean ziharduen (bere aitarentzako galtzerdi pare bat amaitzen ari zen, zeren hark espero baitzuen halako gauzaz ondo hornitu behar zitzaiola). Neskak gorroto zion puntu egiteari. Baina orpoetako zatiarekin iharduten zuenez, bista galtzorratzetik ezin kendurik zebilen.

«Noski, oso desberdina da semeak haztea», jarraitu zuen Hagberd kapitainak bere burutik apur bat urrun. «Neskek ez dute hainbeste behar, noski —hum, hum. Ez dute etxetik ihes egiten, maitea».

—Ez —esan zuen Bessie andereñoak apal.

Hagberd kapitainak, lur-pilatxo iraulien artean zutik, barre ito bat jaurtiki zuen. Itsas soinekoa jantzita, ekaitzek gogorturiko aurpegia, Neptuno aitaren antzeko bizarra, hirurortzekoa aitzurraren orde: tronotik egotzitako itsasoko jainkotasuna zirudien.

—Ziuraski, zure aitak pentsatuko du etorkizuna konponduta daukazula. Horixe da neskek duten onena. Senarrak...

Begiez keinu egin zion. Bessie andereñoak, lanean buru-belarri, apur bat lotsatu zen.

—Bessie. Ekarri nire kapela! —oihukatu zuen Carvil agureak ustegabeen. Zuhaitz azpian mutu eta geldi zegoen, benetan izugarria izan behar zuen sineskerietako sasi-jainko bat bezala. Neskari, neskagatik edota neskari buruzko zerbait oihukatzeke ez bazen, txintik ere ez zuen esaten; horrelakoetan, irainak bata bestearen ondotik isurtzen zitzaizkion. Neskaren jarrera, ordea, ezer ez erantzutea zen; orduan, itsuak oihuka jarraitzen zuen kasu egiten zion arte —neskak besotik astintzen zuen arte edo piparen ahoa hortz artetik sartzen zion arte. Tabakoa erretzen zuten itsu gutxienetako bat zen. Buruan kapela jartzen ziola nabaritu bezain laster, isildu egiten zen. Gero, itsua zutik jarri eta biak elkarrekin etxeko atalasetik igaro ziren.

Neskaren besoaz baliatzen zen ibiltzeko. Pauso txiki eta nekagarriez zebiltzan, eta bazirudien masa gaixotiaren zama osoa neskak eraman behar zuela, zigor moduan edo. Normalean, errepidea zeharkatzen zuten laster asko (etxettoak portu hurbileko zelaietan zeuden, kale amaieratik berrehun yardara), eta luzaro egoten ziren agerian, uhinurrategian gora zeramaten zur-mailetatik poliki-poliki igotzen. Uhinurrategia ekialdetik mendebaldera hedatzen zen, trenbide-lubeta balitz bezala Kanalea itxiz (ez zuen inork gogoratzen trenbide-lubeta hartatik tren bat ere ibili zenik). Taldeka, arrantzale sendoak sortzen ziren zerurantz, tarte batez luze ibiliz, eta berriro desagertzen ziren presarik gabe. Sare arreak —armiarmatzarren amaraunak bezalakoak— aldapako belar zimelduan ikus zitezkeen. Kaleko amaieratik begia altxatzerakoan, herriko jendeak berehala ikusten zuen bi Carvildarrak zirela (haien ibilera geldoa nabarmenegia zen). Hagberd kapitainak, bi etxetto inguan noraezean zebilela, burua altxatzen zuen noiz edo noiz, bi Carvildarrak bidetik nola zihoazen ikusiz.

Igandeko iragarkietan, Harry Hagberdi buruzko iragarkiak jartzen segitzen zuen. Egunkariak atzerriko toki guztietan, mundu osoan irakurtzen ziren, jakinarazten zion Bessieri. Dena den, bazirudien bere semea Ingalaterran zegoela sinesten zuela —Kolebrook-etik hain hurbil, non, jakina, «bihar» agertuko baitzen—. Bessiek, nola ez baitzuen ikusten kontu hura Kapitainak bezain garbi, hala izatekotan egunkarietako

gastua alferrikakoa zela argudiatzen zuen; Hagberd kapitainak asko hobeto egingo luke, asteko koroa erdi hori bere buruan gastatuko balu. Neskak zioenez, berak ez zekien Kapitaina zerez bizi zen. «Denek egiten dute» ihardesten zion Kapitainak bere buruaren alde. Igandeko egunkarietan zerrenda luze bat agertzen zen senide desagertuei buruz galdezka. Kapitainak egunkaria ekarri ohi zuen, neskari erakusteko. Berak eta bere emazteak urte luzeak igaro zituzten iragarkiak jartzen; Kapitainaren emaztea, ordea, egonarri gutxiko emakumea izan omen zen: Kolebrook-etiko berriak haren hiletaren hurrengo egunean heldu ziren; hain egonarri gutxikoa izan ez balitz, orain hemen egon zitekeen, egun bakar bat besterik ez luke itxaron behar. «Zu ez zara egonarri gutxikoa, ezta, maitea?».

—Batzuetan, egonarria galtzen dut zurekin —esaten zuen Bessiek.

Semeari buruzko iragarkiak oraindik jartzen segitu arren, jadanik ez zuen informazioaren trukean saririk eskaintzen; zeren-eta buruzko asaldurak eragindako bizkorraldi nahasgarriari esker, bere esku zegoen guztia eginda zegoela garbi baino garbiago ikustera iritsi baitzen. Zer gehiago desira zezakeen? Tokia Kolebrook zen; beraz, galdezka ibiltzeko beharrik ez zegoen. Carvil andereñoak Kapitainaren zentzua goraiatzeko zuen, eta Kapitaina poz-pezik ibiltzen zen, bere itxaropen aurrean neskak hartutako jarrera ikusita. Izan ere, agurearen itxaropena ilusio bihurtuz joan zen —egiaren eta litekeenaren aurrean adimena itsutzen zion ilusio—. Beste etxeko agurearekin bazuen zerikusia; hura ere itsu geratu zen, argiaren eta munduaren edertasunaren aurrean.

Zalantzarria egiten zitzaion edozerk, hoztasunek emandako edozein erantzunek eta seme desagertuari edo beronen emazteari lotutako edozein aditasun-faltak, ordea, sutan jartzen zuten. Eta bere senetik ateratzen zenean, berehala hasten zen hitz zorrotzak marmartzen, besoak gora-behera astintzen eta zeharka begiratzen. Aitzurra indarrean lurrean sartu eta, tresna inguruan bueltaka, hor-hemenka ibiltzeari ekiten zion. Bessie andereñoak kasketaldia deitzen zion amorraldi horiei. Neskak mehatxu egiten zion hatzarekin. Gero, agureak alde egiten zuen haserre; eta Bessie andereñoa berriro ateratzen zenean, Kapitainak betertzaz begiratzen zion, zurezko hesira noiz hurbilduko zain, aita gisako harreman babesgarriak berriro hasteko irrikan.

Bien adiskidetasuna aspaldikakoa izan arren, ez zioten inoiz elkarri hitz egin artean hesi bat izan gabe. Etxeko ardurari esker pilatutako naharotasunak zehatz-mehatz kontatzen bazizkion ere, ez zuen inoiz gonbidatu horiek ikustera. Begi gizatiar baterek ez zituen ikusiko harik eta Harryk lehen begirada bota arte. Egia esan, ez zuen inork haren etxea barrutik ikusi; berak egiten zituen etxeko lanak. Eta bere semearen eskubideek bultzaturik, xelebrequiak egiten zituen. Esaterako, noizean behin herrian erosten zituen gauza txikiak (etxean erabiltzeko gauzak) olanazko jantziaren azpian ezkutaturik sartzen zituen etxean, aurreko lorategitik korrika, mugalariak bezala. Gero, bere burua zuritu nahian, irazkintzen zuen:

—Lapiko txiki bat baino ez zen.

Bessiek, etxeko lanek nekatuegi ez bazuten edo bere aitagatik jasanezineraino kezkatuta ez bazegoen, masailak gorritzen zitzaizkiola egiten zion barre, eta esaten zion:

—Ederki, Hagberd kapitaina. Ni ez naiz egonarri gutxikoa.

—Lasai, maitea. Ez duzu luzaro itxaron beharko —erantzuten zion Kapitainak bat-batean beldurturik, inguruan kezkatutik begiratu, nonbait zer-edo-zer ondo ez zegoela barruntatuko balu bezala.

Astelehenetan ordaintzen zion errenta, hesiaren ginetik. Kapitainak shillingak hartzen zituen egarriz. Bere mantenuan erabili-beharreko penny bakoitzari kontu izugarria egiten zion. Erosketak egiteko ateratzen zenean, Kapitainaren begitarte zeharo

aldatzen zen kalera iritsi bezain laster. Bessie andereñoak ematen zion onespen urriagarritik urrun, babesik gabe aurkitzen zuen bere burua. Irristadan zebilen, hormak sorbaldarekin ukituz; jendeari leporatzen zion arrarotasunaz mesfidatia zen; hala ere, herriko haurrak jadanik ez ziren haren atzetik oihuka ibiltzen, eta dendariak ezer esan gabe saltzen zioten. Olanazko jantziari buruzko aipamenik arinenak Kapitaina guztiz nahasteko eta beldurtzeko boterea zuen, halakorik aipatzea zerbait justifikaezina eta ulertezina izango bailitzan.

Udazkenean, eurijasek olanazko jantzian jotzen zioten danbolindari. Jantzi xebreak, urez gainezkaturik, burdinazko xaflaren zurruntasuna hartzen zuen, blai-blai eginda. Eguraldia oso txarra zenean, Kapitainak ataritxoan zutik geratzen zen, ate ondoan, lorategiaren erdian landaturik utzitako aitzurrari begira. Lurra alde guztietatik aitzurtuta zegoen, zeharo. Eta urtaroa aurreratu ahala, istinga huts bihurtzen zen. Izotza ari zuenean, Kapitaina etsi-etsita egoten zen. Zer esango zuen Harryk? Gainera, urtaro horretan ezin Bessieren laguntasunaz gozatzerik izan. Gutxi balitz, Carvil zaharraren orroek (leiho itxietan zehar itorik heltzen zitzaizkion, neskari deika) haren burutik ateratzen zuten guztiz.

—Txo xeblebre horrek zergatik ez dizu morroi bat lortzen? —galdetu zion pazientziarik gabe arratsalde batean. Alditxo batez kalera joan baino lehen, neskak burua zerbaitekin estali zuen.

—Ez dakit —esan zuen Bessiek zurbil eta ahul, begiak (betazal astun, gris-kolore eta esperantza gabekoak) zeharkatuz. Bessieren begi azpian itzal zirriborrotsuak ikusten ziren beti, eta ez zirudien bere bizitzan aldaketarik edo helbururik ikusteko gauza zenik.

—Ikusiko duzu ezkontzen zarenean, maitea —esan zuen neskaren adiskide bakarrak, hesira hurbilduz—. Harryk baten bat lortuko dizu.

Kapitainaren zoratasun itxaropentsuak bazirudien Bessieren itxaropen-beharrak barre egiten zuela. Horrek mingostasuna eragiten zuen Bessieren bihotzean, eta Kapitainari aurpegi-aurpegira deiar egiteko gogoia ematen zion. Neskak, hala ere, bere buruaz barre egiten zuen; eta Kapitaina burutik ondo balego bezala, zera baino ez zuen esaten:

—Beharbada, Hagberd kapitaina, zure semeak ez du nitaz ezer jakin nahi izango.

—Zer? Nire mutila? Inguruetan dagoen neska jator bakarrari ez dio begiratuko, ba? Zertarako uste duzu ni hemen nagoela, maitea-maitea-maitea?... Zer? Egon! Egon apur batez. Bihar ikusiko duzu. Laster...

—Bessie! Bessie! —ulu egin zuen Carvil agureak etxe barrutik—. Bessie, nire pipa!

Gizon itsu eta lodikote hura alferkerian bizi zen benetako grinaz. Ez zuen inolako ahaleginik egiten behar zituen gauzen bila joateko, nahiz-eta neskak gauzak haren alboan beti hurbil uzteko ardura izan. Piska bat ere ez zen mugitzen, ez zen aulkitik altxatzen, egongela hartan ez zuen urrats bakar bat ere egiten (bidea begi ona izango balu bezain ongi ezagutzen bazuen ere). Bessieri deitu eta bere gorputzaren zama osoa zintzilikatzen zuen neskaren soinetik. Ez zuen mokadu bat ere jango Bessie ondo-ondoan ez bazuen. Zorigaitzaz geroztik elbarriarena egiten zuen, alaba uztarpean izateko. Bessie hantxe geratu zen une batez, hortzek karrask egiten ziotela; gero, bueltatu eta etxe barrura sartu zen poliki-poliki.

Hagberd kapitaina aitzurrean hasi zen berriro. Carvilen etxean oihuak amaitu eta, unetxo bat pasata, egongelako beheko leihoa argitu zen. Pauso sendo eta lasaian kale-muturretik zetorren gizona aurretik igaro zen. Baina Hagberd kapitaina ikusi zuen antza, atzera egin baitzuen. Mendebaldeko zeruan argi hotz eta zuri bat ikus zitekeen. Gizona ate gainetik makurtu zen, aditasuna erakarri nahian.

—Hagberd kapitaina? —galdetu zuen ziurtasun handiz.

Agurea bueltatu zen aitzurra lurretik ateraz, ahots ezezagunak asaldatuta.

—Bai, ni naiz —erantzun zuen urduri.

Besteak zuzen-zuzenean irri egiten ziola, esan zuen presarik gabe:

—Zure semeaz galdezka ibili zara, ezta?

—Nire semea Harry —farfuitatu zuen Hagberd kapitainak ustekabeen harrapatuta— bihar da hemen.

—Zer arraio! —ezezagunak, guztiz harrিতuta, mintzatzen segitu zuen ahoskera-aldaketa txiki batez—: Bizar horrekin Aitta Noel berbera ematen duzu.

Hagberd kapitaina arrotzari hurbildu eta aitzur gainetik makurtu zen.

—Alde hemendik —esan zuen minduta eta herabeti, bere buruaz barre egingo zutela beldur egoten baitzen beti. Buruzko egoera bakoitzak, baita zoratasunak ere, norberarenganako maitasunean du oinarri. Buruzko asaldurak zorigaitza dakar; oinarritzko nozio-eskema baten erdian bizi zenez, jendearen iseka-hitzek min izugarria ematen zioten Hagberd kapitainari. Zerbait ondo ez zebilela adierazten zuten: zer, ordea? Ez zegoen asmatzerik. Hala ere, ezezaguna barre egiten ari zen —berataz barre egiteko iritsia zen, beste helbururik gabe—. Kaleko isekak jasatea gogor samarra zen; baina lehenago ez zuten inoiz modu horretan iraundu.

Arrotzak, burua aitzurkada batez erdibitzeko arriskuaz ezjakin, esan zuen ganoraz:

—Ez naiz zure lorategian sartu. Beldur naiz zure berriak ez direla guztiz onak. Zure etxean sartzen utziko al didazu?

—Zuri nirean sartzen utzi! —deiadar egin zuen bihotz-ikara adierazgaitzaz.

—Zure semeari buruzko benetako berriak emango dizkizut, azken orduko berriak, entzun nahi badituzu.

—Ez!

Oihu egin zuen Hagberdek. Hor-hemenka ibiltzen hasi zen suak hartuta. Aitzurra lepora eraman zuen; beste besoarekin imintzioka ari zen.

—Beraz, tipoa etorri, «tipo isekaria» bera, eta zerbait gaizki doala esan du. Zuk lor ditzakezunak baino askoz berri gehiago ditut nik. Nahi adina albiste ditut. Aspaldidanik —aspaldidanik izan ditut: eta bihar arte itxaroteko gauza ez naiz, ba, izango? Zuri nirean sartzen utzi! Zer esango zuen Harryk?

Bessie Carvilen gizairudi beltza egongelako leihoan agertu zen. Ate zabaldu baten zaratarekin batera, kanpora atera zen isilka-misilka. Beste etxearen aurrealdera jo zuen. Gizairudi beltz bat zen, eta buruan zuri-koloreko zerbait zeraman. Kanpoan ustekabeen mintzatzen hasitako bi ahotsek —etxe barrutik entzun zituen— halako hunkipena eragin zioten, non, hitzik ahozkatzerik ez zeukan.

Hagberd kapitainak bazirudien kaiola batetik ihes egin nahian zebilela. Haren baratze-zaletasunak utzitako potxingoetan plisti-plasta zebilen. Alferrikatutako belarsaileko zuloekin oztopatzen zuen. Hesi alderantz korrika egin zuen itsu-itsuan.

—E, zaude lasai! —esan zuen ateko gizonak ganoraz, besoa luzatuz eta Kapitaina mahukatik hartuz—. Norbait saiatu da zutaz barre egiten. Tira! Zer-nolako mozorroa da jantzita daukazuna? Ekaitz-olana! Arraioa! —Zarata handiz barre egin zuen—. Beno, izatekoa zara!

Hagberd kapitainak brastada batez askatu eta beldurtuta atzera egin zuen.

—Oraingo —ahoskatu zuen lur jota.

—Zer gertatzen zaio? —zuzendu zitzaion arrotza Bessieri mamitasunez eta ahoskera ausarti eta galdetzailez—. Ez da nire asmoa izan agurea beldurtzea —ahopeka hitz egin zion, Bessie aspalditik ezagutuko balu bezala—. Bidez sartu nintzen bizarte-

gian, bi pennyren truke ea bizarra kentzen nuen, eta bertan esan zidaten hemen bazela gizon izateko bat. Agurea beti izan da izatekoa.

Hagberd kapitaina jantziari buruzko aipamenak lotsatuta, etxe barrura zokoratu zen, aitzurra berarekin eramanez. Ate-danbada batek asaldaturik, lorategiko biek morroilo-zarata, zerraila-klaskada eta barre gargartsu faltsuak entzun zituzten.

—Haserratu da. Baina ez dut nahita egin, benetan —esan zuen gizonak isilaldi labur baten ondoren—. Zer ari da gertatzen hemen? Ez dago zeharo zoratuta.

—Haren semea desagertu zenetik, oso kezkatuta ibili da —esan zuen Bessiek ahopeka eta agurea zuritu nahian.

—Beno, ba, ni naiz haren semea.

—Harry! —oihu egin zuen Bessiek —gero, isilaldi sakona izan zen.

—Beraz, nire izena al dakizu? Agurearen laguna zara, ezta?

—Gure etxajebea da —esan zuen Bessiek totelka burdinazko barandari eutsiz.

—Beraz, harenak al dira bi untxitegi hauek? —iruzkin egin zuen Hagberden semeak erdeinuz—. Bai, halako gauzez harrotzen direnetarikoa da. Esango al didazu nor den bihar etortzekoa den tipoa? Kontu horretaz zerbait jakingo duzu zuk, ezta? Benebenetan esaten dizut, andereño, ziri ederra sartu nahi diote agureari, eta besterik ez.

Bessiek ez zuen ezer erantzun. Zailtasun gailenezin baten aurrean babesik gabe zegoen; azalpen baten behar eta ezinak egoera beldurgarri baten aurrean jartzen zuen, eta bazirudien bera eta zoratasuna elkar hartuta zeudela.

—O, asko sentitzen dut —esan zuen ahopeka.

—Zer gertatzen da? —esan zuen gazteak lasai-lasai—. Ez duzu nitaz beldur izan behar. Beste tipoa da nitaz beldur izan behar duena, eta gutxien espero duenean, gainera. Bost axola niri. Bihar, ordea, tipo horrek musturrak agertu bezain laster, iskanbila izango dugu hemen. Bost axola niri agurearen kontuak. Bidezkoa dena bidezkoa da. Ikusiko duzu, ba, zer-nolako aurpegia utziko diodan zomorro horri, nor den ere!

Neskarengandik hurbilago zegoen, eta barandaraz bestaldetik izugarri altxatzen zen Bessieren aurrean. Gazteak eskuak begiratu zizkion. Bessie dardarka ari zela iruditu zitzaionez, pentsatu zuen, ezen, neskak zerikusia izan lezakeela bihar agureari egingo zioten txantxarekin. Ideia oso pozgarria egin zitzaion: azpikeria eragotziko zuen mesprezuz. Baina bizitzan bera beti izan zen barkabera, emakumeek asmatutako maltzurkeria-mota guztiekiko. Dardar bizi batek Bessie bereganaturik zeukan; buruzapia lurrera erori zitzaion. «Gaxoa» pentsatu zuen Hagberd kapitainaren semeak.

—Ez kezkatu tipo horretaz. Ez nintzateke bat ere harrituko biharko iritziz aldatuko balitz. Niri dagokidanez... Zer egin dezaket? Bihar arte egongo al naiz ate honen aurrean gora eta behera paseatzen? Ezta pentsatu ere.

Bessie lehertu zen:

—Zu zara, zeu zara agureak itxaroten duena. Zeu zara bihar etortzekoa den «tipoa».

Mutilak ezer ezin ulertuz, oiuhu egin zuen:

—O, neu naiz!

Une batez, biak arnasarik gabe geratu behar zirela irudi zuen. Antza zenez, hitz horiei buruz gogoeta egiten ari zen; gero, haserre bazegoen ere, dudarik gabe nahastuta, esan zuen:

—Ez dut ulertzen. Ez nuen idatzi, ezta antzeko gauzarik egin ere. Nire konpaiak egunkaria gaur goizean bertan irakurri eta esan dit... E? Zer?

Erne-erne zegoen; neskak xuxurlaka hitz egiten zion, eta bera alditxo batez adi egon zen, noizean behin «bai» eta «ulertzen dut» xuxurlatzen. Azkenik, galde egin zion:

—Baina, zergatik ez gaur bertan?

—Ez didazu ulertu —hots egin zuen Bessiek urduri. Hodei azpiko argizko marra argitsua mendebaldean iraungi zen. Mutila berriro makurtu zen hobeto entzuteko. Gau sakonak emakume xuxurlatia eta gizon adia lurperatu zituen, sekretuaren eta laztanaren antz horrekin, aurpegi hurbiltasun kutuna izan ezik.

Mutilak soinak goratu zituen; hegal zabaleko kapelaren itzalak burua estaltzen zion harrotasunez.

—Ez da oso kontu atsegina, ezta? —esan zuen neskarengana hurbilduz—. Bihar? Oso ondo. Ez dut inoiz antzekorik entzun. Hortaz, ikusten dudanez, beti bihar da, egun izaterik ez dago.

Neska geldi eta mutu geratu zen.

—Eta zuk aurrera bultzatu duzu, ideia xeble horretan sinesten jarrai dezan —esan zuen mutilak.

—Ez diot inoiz atsekabe eman nahi izan.

—Zergatik ez?

—Zertarako egin behar nuen? —zuritu zuen bere burua neskak—. Zoritxarreko bihurtuko nukeen. Burua galduko zukeen.

—Burua! —hots egin zuen ahapeka, eta neskarengandik zetorren barre labur eta urduria entzun zuen.

—Bai, burua. Eztabaidaka hasi behar al nuen agure gizarajoarekin? Niretzat errazagoa zen kontua sinestea, erdizka bakarrik izango balitz ere.

—Bai, noski —egin zuen gogoeta argitasunez—. Ikusten denez, agurearen hizketa samurra buruan sartu zitzaizun, nolabait esateko. Bai, bihotz onekoa zara.

Neskaren eskuak ilunean urduri mugitu ziren.

—Baina litekeena da kontua egia bihurtzea. Areago: egia bihurtu da. Gertatu egin da. Hementxe dago. Hau da zain genuen «biharamuna».

Bessiek arnasa hartu zuen eta esan zion mutilak:

—Bai, atea itxita heldu bazaigu ere. Ez lidake axola handirik emango baldin-eta... Ziur al zaude agurea nitaz gogoratzeko modurik dagoela? E? Zer?... Zuk lortuko duzula? Astebetea behar duzula diozu? Umm... Baietz esango nuke nik —hala ere, benetan uste al duzu toki ezin aspergarriago honetan astebete baino luzarago egongo naizela? Ezta pentsatu ere! Nik zera nahi dut: gogor lan egin, edo lapurreta on bat antolatu, edo Ingalaterra osoan dagoena baino leku zabalagoa izan. Herri honetan behin izan nintzen, astebetetik gora gainera. Garai hartan, agurea iragarkiak jartzen ibiltzen zen. Ni lagun batekin nengoan. Eta lagun honi txanpon batzuk irabazteko ideia bururatu zitzaion. Zera: eskutitz batean ergelkeria pila idatzi eta agureari bidali genion. Zoritxarrez, gure bihurrikeria ez zen ondo atera. Ihesi atera behar izan genuen —eta ordu onean, alajaina! Nire laguna Londresen dago, nire zain. Gainera...

Bessie Carvilek nekez hartzen zuen arnasa.

—Eta atea joko banu? —otu zitzaion mutilari.

—Saiatu, bai —esan zuen neskak.

Hagberd kapitainaren ateak kirrinka egin eta semearen itzalak aurrera egin zuen; gero, eztarriko barre sakon bat ateraz, (aitarena bezalako barrea zen, samurragoa eta atsegina izan arren —hunkigarria, neskaren bihotzarentzat; zirikagarria, haren belarrirako—), gelditu egin zen.

—Bihurria al da? Ez nioke muturrekorik eman nahi. Lagunek beti esaten didate indarrak neurtzen ikasi behar dudala.

—Inoiz izan den gizonik baketsuena da —eten zion neskak.

—Ez zenuke horrela pentsatuko, eskaieran gora niri jarraika ikusi izan bazenu, gerrikoa eskuan zartailu gisa —esan zuen—. Hamasei urteotan nekez ahaztu ahal izan

dut nik.

Mutilak ateratako beste barre samur eta ito baten ondoren, Bessiek bero handia sentitu zuen burutik oinetara. Krisketak ateratako rat-ta-tarekin batera, bihotza eztarriraino igo zitzaion.

—E, aitatz! Utzidazu etxean sartzen! Harry naiz, ni naiz. Benetan! Egun bat lehenago itzuli naiz.

Goiko leiho bat ireki zen.

—Mutil keinukari, berri-emailea dugu —esan zuen Hagberd agurearen ahotsak goitik, ilunetik—. Harekin ez dago zer eginik. Den-dena pikotara bidaliko du.

Bessiek Harry Hagberd-i entzun zion zera esaten:

—Kaixo, aitatz.

Gero, metal-zalaparta handia. Leihoa burrunbaka jaitzi zen eta mutila neskaren aurrean agertu zen berriro.

—Garai zaharretan bezala izan da. Ia-ia bizia kendu zidan, etxetik ihes egin ez nezan eragozteko. Orain, berriz, etxera itzuli eta para madarikatu bat bota dit etxetik urrun egon nadin. Lepotik hurbil pasatu zait.

Bessie andereñoak zirgit egin zuen.

—Ez litzaidake asko inportako —hasi zen mutila—, izango ez balitz azken shillingak gastatu ditudalako tren-txartela erosteko. Eta beste bi peeny bizarra kentzeko, zera, agurearekiko begiruneagatik.

—Benetan al zara Harry Hargberd? —galde egin zuen neskak ahopeka—. Frogatzeko modurik ba al dago?

—Frogatzeko modurik ba al dagoen? Nork frogatuko dizu? —esan zuen alai—. Nolatan frogatu? Zer frogatu behar dut? Harry Hagberd izenaz oroitzen ez den gizonik (edo emakumerik da litekeena) ez dago mundu osoan, beharbada Ingalaterran izan ezik. Bizirik dagoen beste edozein gizon baino «Harry Hagberd-agoa» naiz ni; atetik sartzen uzten badidazu, amen batean frogatuko dizut.

—Aurrera —esan zuen Bessiek.

Mutila, orduan, Carvildarren aurreko lorategian sartu zen. Gaztearen itzal luzea pausoka zebilen, habailduta. Neska leiho aldera bueltatu eta zain geratu zen, atalik ukigarriena oinatzak zituen gizairudiari begira. Bitan banaturiko kapelaren gainean, iluntasuna printzatzan zuela ematen zuen lepo sendoaren gainean, nabarmen aurreratutako hankaren gainean argia erori zen. Mutila tokian bertan bueltatu eta geldigeldi iraun zuen, neskaren atzeko egongelako leiho argituaren aurrean, alde batetik bestera buruari eraginez, bere artean eztsitu barre egiten.

—Pentsa, une batez, agurearen bizarra nire kokotsari atxikita dagoela. E? Esan orain. Txikitatik izan naiz haren irudi berbera.

—Egia da —esan zuen neskak bere artean.

—Hori besterik ez dago. Agurea beti izan zen etxezale horietako bat. Tira, oroitzen naiz nola ibiltzen zen itxuraz oso gaixorik, South Shieldserantz bidaian atera behar zuen bakoitzean, ikatz bila etxea utzi baino hiru egun aurrekoetan. Gaslantegiarekin ba omen zuen hilabeteroko pleit-itun bat izenpeturik. Edonork pentsa zezakeen balearen arrantzara zihoala —hiru urte eta koska itsasoan. Ja, ja! Bai zera. Hamar eguneko itsasaldia. *Itsasoetako Aparra* untzi dotorea zen. Izen polita, ezta? Amaren osabarena zen...

Gero, isildu eta galde egin zion ahapeka:

—Esan zizun inoiz zer dela-eta hil zen nire ama?

—Bai —esan zuen Bessiek garratz—. Egonarriz hil zen.

Une batez, mutila isilik egon zen; gero, zakar:

—Bide okerrera joko nuela beldur ziren, eta etxetik bota ninduten ia-ia. Amak agirika egiten zidan alferra nintzelako, eta agureak esaten zuen txiki-txiki eginda utziko ninduela, ni itsasoratzen utzi baino lehen. Beno, bazirudien, egin, horrela egingo zuela. Beraz, alde egin nuen. Batzuetan, haien artean jaio izana oker itzela iruditzen zitzaidan —beste untxitegi bat bezalakoa zen etxe hartan...

—Non jaio beharko zenukeen, ba, eskubidez —eten zion Bessie Carvilek zirikalari.

—Haize agerian, hondartzan, gau haizetsu baten erdian —erantzun zion azkar. Gero, erantsi zuen geldiro—: Izatekoak ziren, biak, alajainkoa!; agurea beti gazte, ezta? Para madarikatu bat jaur... Entzun! Nor da zalapartari hori? «Bessie, Bessie». Zarata zure etxetik dator.

—Niretzat da —esan zuen axolagabe.

Mutila aldendu zen, argi lerrotik kanpora.

—Zure senarra al da? —galdetu zuen emakume-kontu debekatueta trebea den gizonaren ahoskeraz—. Untzi gainaldean zeinen ongi egingo zuen, ekaitz baten erdian, bera bezalako ahots batekin!

—Ez; nire aita da. Ez nago ezkondua.

—Neska aparta ematen duzu, Bessie maitea —esan zuen bat-batean.

Neskak aurpegia alderatu zuen.

—O, zer gertatzen zaio? Norbaitek hil nahi du ala?

—Bere tea nahi du.

Bessiek aurpegira begiratu zion, lasai —emakume garaia zen—, burua alderatuta, eskuak aurretik elkartuta eta zintzilikatuta.

—Ez al litzateke hobe izango barrura sartuko bazina? —galdetu zuen neskaren lepo-kakoari, zuri-koloreko azalune zoragarriari eta soin gaineko zirriborro ilunek islatutako itzal bigunei begira aldi batez egon eta gero. Bessieri buruzapia labaindu zitzaion soin gainera—. Herri osoa etorriko da. Hementxe egongo naiz zure zain.

Neskaren buruzapia lurrera erori eta mutila hura jasotzeko makurtu zen; neska alde eginda zegoen. Buruzapia besora eraman eta, leiho alderantz zuzen-zuzenean hurbilduz, gizon lodikotearen itxura erraldoia ikusi zuen besaulki batean eserita. Pantailarik gabeko argia ere ikusi zuen, baita itxurarik gabeko ile-koroari inguratzen zitzaion aurpegi eskergan eta zabalean aharrausi itzelezko bat ere. Gero, Bessieren burua eta soingaina. Deiadarrak amaitu ziren; itsua giltzarik gabeko erloju bat bezala geratu zen. Hagberd gaztea hura guztia zeinen desatsegina zen pentsatzen hasi zen. Haren aita burutik jota; etxean ezin sartuz. Londresera itzultzeko dirurik ez; Londreseko lagun gosetia musuhutsik utzita zeukala pentsatzen hasita...

—Zer arraio! —marmar egin zuen.

Atea lurrera botatzeko gauza zen, noski; hala egitekotan, ordea, kaiolan sartuko lukete galderarik egin gabe —hori ez zen okerrera; baina, hala ere, beldur izugarria ematen zion atxilotua izateak, oker batengatik izanda ere. Pentsatze hutsak ikaraz betetzen zuen. Belar bustia oinkatu zuen.

—Zer zara zu? Marinela? —esan zuen ahots kezkarri batek.

Bessie kanpoan zegoen berriro, bera ere itzal bihurtuta, etxeko murraren azpian zain zeukan itzal bipilak erakarrita.

—Edozer. Untzi batean ogia irabazteko bezain marinela, behintzat, ez. Oraingoz, etxera itzuli naiz.

—Nondik zatoz? —galdetu zuen neskak.

—Zera, ba, festa bikain batetik —esan zuen—, Londresko trenean... Ba al dakizu gauza bat? Uf! Gorroto diot trenez bidaiatzeari. Etxe batean sartzeak, berriz, ez dit

horrenbesteko axola ematen.

—A —esan zuen Bessiek—; orduan, gaitzerdi!

—Etxe batean bazaude, ate madarikatua ireki eta nahi duzunean alde egin dezakezu.

—Eta itzuli, noiz? Inoiz ez?

—Hamasei urte pasa arte, behintzat, ez —barre egin zuen—. Azken batean, untxitegi batean sartzeko eta buruan palakada bat lortzeko...

—Untziak ez dira oso handiak... —esan zion Bessiek isekaz.

—Ez. Baina itsasoa, ordea, zabala da.

Neskak burua makurtu eta belarriak munduko ahotsen aurrean zabaldu balitzaizkio bezala, aurreko eguneko enbataren sagailari entzun zion murruez bestaldean leher egiten, itzal handiko dardar aspergarri batez, lur osoa izango bailitzan joka eta joka ari zen ezkila.

—Gainera, beno, untzia desberdina da. Untzia maite duzu eta uzten duzu; bidaia ez da ezkontza —marinelen esaera zaharra bota zion axolagabe.

—Ez da ezkontza —xuxurlatu zuen Bessiek.

—Ez dut inoiz gezurrezko izenik erabili, eta orain arte ez diot emakume bakar bati ziria sartu. Zer-nolako ziria? Beno, ziria... Nik zera esaten dut: har nazazu edo utz nazazu; hartzen banauzu... —konpas batzuk kantatu zituen hortz artean, ahapeka, murruren kontra bermatuta.

«Oh, ho, ho rio!
And fare thee well,
My bonnie young girl,
We're bound to Rio Grande»

—Itsasoko kanta da —adierazi zion. Bessieren hortzek karraska egin zuten.

—Hotz zara —esan zuen mutilak—. Tori lurretik jaso dudan zure gauza hori —Neskak mutilaren eskuak sentitu zituen bere inguruan, buruzapiaz bera ondo arropatuz—. Lotu buruzapia aurreko puntatik —esan zion mutilak.

—Zertarako etorri zara? —galdetu zion neskak hotzikara bati eutsiz.

—Bost libera irabazteko —erantzun zion azkar—. Festa luzea izan zen eta simon geratu ginen.

—Edaten ibili zara? —galde egin zion.

—Barra-barra azken hiru egunetan; nahita. Ez naiz oso ardozalea... ez pentsa. Nik nahi ez badut, ez ezerk ez inork menperatuko nau, harkaitza bezain gogorra izan naiteke. Gaur goizean, nire lagunak egunkaria ikusi eta esan dit: «Tira, Harry: aitak maite zaitu. Horrek bost libera balio digu, ziur—. beraz, poltsikoari azken errepaso eman genion, tren-txartela ateratzeko. Txantxa madarikatua!

—Gogortu ez ote zaren beldur naiz —hasperen egin zuen neskak.

—Zergatik? Etxetik alde egin nuelako? Zer arraio! Ni ordezeko abokatua izatea nahi zuen... soilik bere buruaz pozik egoteko. Etxeko jauna; eta nire ama gaxoak areago zirikatzen zuen... nire onerako uste dut. Beno, ba... Ikusi arte; eta alde egin nuen. Ez, benetan esango dizut: hanka egin nuenean, ubelduraz beteta nengoen... Bai, izugarri maite ninduen. A! Beti izan zen izatekoa. Begira horko pala horri. Burutik eginda? Inolaz ere ez. Halaxe da, ba, nire aita. Halaxe da. Nola ez daukan noren gainean agindu, nitaz pentsatu omen du. Dena den, gu txakurrik gabe geunden eta.. zer axola berari bost libra gehiago edo gutxiago... hamasei urtean behin?

—O, nik zutaz sentitzen dut, benetan. Eta ez duzu inoiz etxera itzultzea

pentsatu?

—Ordezko abokatua izateko eta hemen usteltzeko? Halako toki batean? —oihu egin zuen erdeinuz—. Zer arraio! Agureak etxe batean sartuko banindu, ostikoka botako nuke... hiru lau egun baino lehen hilko nintzateke.

—Non espero duzu, ba, hiltzea?

—Edozein menditan; itsasoan; mendi madarikatu baten tontorrean, behintzat nire gogoaren arabera bada. Etxean? Bai zera! Mundua da nire etxea; ospitalen batean, ordea, hiltzea espero dut. Zer axola du horrek? Edozein toki ona da, baldin eta bizi izan banaiz; asma dezakezun guztia izan naiz ia, jostuna eta soldadua izan ezik. Baserritarra izan naiz; artilea moztu dut; han-hemen ibili naiz; balea bati harpoia sartu diot. Untziak egin ditut, eta urre bila ere ibilia naiz, eta idiak akabatu eta larrutu ditut... Agureak sekulan pentsatu zuenari baino askoz diru gehiagoari eman diot bizkarra. Ja, ja!

Bessie txunditzen zuen. Apur bat lasaitu eta gero, indarrak bildu eta esan zuen:

—Etxera itzultzeko ordua da.

Mutila zutik jarri, murrutik aldendu eta ahots lodiaz esan zuen:

—Alde egiteko ordua da.

Baina bertan geratu zen. Murruaren kontra berriro bermatu eta kanta sekretu baten konpasak kantatu zituen pentsakor.

Bessie negar egiteko zorian zegoen.

—Zure kantak oso ankerrak dira —esan zuen.

—Mexikon ikasi nituen, Sonoran hain zuzen —ganoraz mintzatzen zen—. Ganbusinarren kanta da. Ez duzu inoiz entzun? Gizon geldigaitzen kanta da. Toki batean ezin zitzakeen ezerk geldiarazi, ezta emakume batek ere. Garai zaharretan, halakoak topatzen nituen noiz edo noiz, urre-lurraldeko bazterretan, ipar-iparraldera, Gila ibaiatz bestaldean. Ikusi egin ditut. Mazatlán-eko ikertze-injineru batek eraman ninduen berarekin, tren- bagoiez arduratzeko. Itsas gizonak edozertarako balio du. Basamortua da hura guztia: hondorik gabeko arrailak agertzen ziren lurtean; mendiak, berriz, elizmuruak eta dorreak bezain zutak, hamaika aldiz altuagoak baina, harkaitz hutsak ziren; belar piska bat ere ez da hazten; eguzkia mendebaldean sartzen denean, beste inon baino askoz gorriagoa da... odolez eta haserrez gorri-gorria. Ederra *da*.

—Hara itzultzeko irrikan al zaude? —esan zuen Bessiek totelka.

Barre piska bat egin zuen.

—Ez. Urrezko lurralde hura madarikaturik dago. Batzuetan, paisajeari begira, zirgite egiten nuen... Eta gizon askotxo ginen, ez pentsa... Ganbusinarrak, hala ere, bakar-bakarrik ibiltzen ziren beti, hara eta hona. Herrialdean zehar ba omen zebiltzan beste inor baino askoz lehenagotikan. Aparteko trebetasuna zuten urrea aurkitzeko. Baina urresukarrak jota zeuden. Meatze aberats bat aurkitu eta gero, aurkikuntza berriari bizkarra ematen zioten. Ez ziren inoiz gelditzen etxe bat zegoen tokian; ez zuten emazterik, ezta neskarik etxerik edo konpairik ere. Ganbusinar batekin ez zegoen adiskidetzetik; odol-bizikoegiak ziren —gaur hemen, eta bihar nork daki! Aurkikuntzei buruzko hitzik ez zioten inori egiten; gainera, ganbusinar bat ere ez da sekula aberatsa izan. Urreak ez zien axolarik ematen; bai, ordea, lurralde harritsuari zehar urre-bila etengabe ibiltzeak. Hortaz, oraindik ez da emakumerik jaio, ganbusinar bat astebete baino luzaroago ondoan izango duenik. Kantak, behintzat, hala dio. Neska panpoxa bati buruz ari da, eta egin zituen ahaleginei buruz, ganbusinar maiteak alde egin ez zezan. Ganbusinarrari atxikiz gero, urre pila ekarriko ziola uste zuen. Bai zera! Alde egin zion, eta ez zuen berriro ikusi.

—Zer egin zuen neskek orduan? —hasperen egin zuen Bessiek.

—Kantak ez dio ezer horretaz. Negar piska bat egingo zuen, nik uste. Izatekoak ziren; musu bat eta adio. Dena den... zerbaiten bila, gauza baten bila joatea... Batzuetan,

ganbusinarren ezpalekoa naizela iruditzen zait.

—Orduan, emakume batek ezin zaitu etxean izan —hasi zen ahots ausartaz, handik gutxira hautsi bazitzaion ere.

—Luzaro, ez; astebetetz, gehienez —erantzun zion txantxetan, barre eginez eta neskaren sentimenduekin jolasean—; dena den, emakume guztiak gustatzen zaizkit. Edozer egingo nuke, behar bezalako emakume batengatik. Makina bat istilutan ez ote nauten sartu, eta beste andana batetik atera! Lehendabiziko begiratuan maite ditut. Oraintxe bertan zutaz maiteminduta nago, Miss... Bessie duzu izena, ezta?

Bessiek apur bat atzera egin zuen eta barre dardartsuaz esan zuen:

—Oraindik ez duzu nire aurpegia ikusi.

Berak, hala ere, apur bat aurrera egin zuen ausart:

—Zurbil zaude. Kolore horrek on egiten dizu. Neskato zoragarria zara, Miss Bessie.

Hitz horiek Bessieren bihotza jo zuten. Inork ez zion lehenago hainbat esan.

Mutilaren ahotsa aldatu zen.

—Uste dut gose naizela. Egia esan, gaur ez dut ezer bazkaldu. Te apur bat eta ogi piska bat ekarriko bazenizkit...

Neska jada joana zen. Haren etxean sartzen uzteko, eskatzeko zorian egon zen. Ez zuen axolarik. Edozein tokik balioko zuen. Kontu madarikatua! Zer pentsatuko zuen lagunak?

—Ez dizut eskale moduan eskatu —esan zuen txantxetan besteak luzatzen zion plateretik ogi zerra bat marmeladarekin hartuz—. Lagun moduan eskatu dizut. Badakizu nire aita aberatsa dela.

—Gosez hiltzen da zugatik.

—Ni ere gosez hiltzen naiz berak hala nahi duelako —esan zuen beste ogi zerra bat hartuz.

—Munduan daukan guztia zuretzat da —esan zuen agurearen alde.

—Bai, baldin hemen geratzen banaiz, apo-txulo madarikatu honetan. Eskerrik asko. Ikustekoa izan da palarena! Beti oso xelebrea izan zen, bere maitasuna erakusteko orduan.

—Nire esku uzten baduzu, beste modu batez pentsatuko du astebete barru —iradoki zuen neskak lotsakor.

Goseak hilik zegoenez, ez zion ezer erantzun; eta mutilaren aurrean platera jarritz, arnasestuka eta ahots asaldatuaz hasi zitzaion xuxurlaka. Mutilak alai entzuten zion; gero, poliki-poliki jarraitu zuen jaten, harik eta haren matrail-hezurak zeharo gelditu arte.

—Beraz, azpijoko horrekin ari da, e? —esan zuen mutilak erdeinari eta mingots. Gero, haren eskuak egindako mugimendu menperagatiz batez pikotara bidali zuen platera neskaren eskuetatik. Biraoka hasi zen.

Bessie kikildu zen eta eskuak murruan bermatu zituen.

—Ez! —orro egin zuen mutilak—. Zain dago! Nire zain dago! *Ni* agurearen diru ustelaren truke!... Nork nahi du etxe hau? Zoroa? Ez, inolaz ere ez. Bai zera! Berea egin nahi du. Lehen, ordezko abokatu mixerable bihurtu nahi ninduen; orain, berriz, etxekoturiko untxitxo. Nor-eta ni! —Mutilaren barre itoak eta saminak neska izutzen zuen.

—Munduaren zabala ere ez da zabalegia niretzat, egon ziur horretaz... Nola duzu izena?... Bessie? Untxitegi bateko gela madarikatua: ezta urrik eman ere!... Ezkondu! Ezkondu eta gizon zintzoa izatea! Horra zer nahi duen. Gainera, neska aukeratzeaz ere arduratuko zen, nola ez ba... Zoro halakoa! Ba al dakizu emaztegia nor den, galdera

zilegi bazait?

Bessiek, negarrik gabe eta isilik zotinka, zirgit egin zuen; Kapitainaren semea, hala ere, oso haserre eta burutik aterata zegoenez, ez zen Bessieren atsekabeaz ohartu. Pentsatze hutsarekin, tripak jaten zituen. Leiho batek irekitzerakoan ateratako hotsa entzun zen.

—Mutil keinukari, berri-emailea dugu —aldarrikatu zuen Hagberd kapitainak dogmati eta neurridun. Agurearen ahotsak zoramena eta hondamena isuri zuen lurretik eta Bessieri gaua ere zoratu egingo zela iruditu zitzaion.

—Orain badakit zer dabilen gaizki bertoko jendearekin, maitea. Bai, noski! Halako tipoak kalean aske uzten badituzte... Ez hitz egin berarekin, Bessie. Bessie, alde hortik!

Mutu geratu ziren. Agurea urduri mugitzen eta marmar egiten hasi zen leihoan. Ustekabean, oihu zorrotza bota zuen:

—Bessie... ikusten zaitut. Harryri esango diot.

Bessiek korrika ateratzeko imintzioa egin zuen; baina bertan gelditu eta eskuak lokietara eraman zituen. Kapitainaren semeak brontzezko irudia bailitzan iraun zuen bertan, goibel eta izugarri. Bien gaintik, gau eroa kexaka eta madarizioka ari zen agure baten ahotsaz.

—Bidalzazu pikotara, maitea. Arlote bat baino ez da. Etxe on bat behar duzu zuk. Alajainkoa! Tipo horrek ez du etxerik, ez da Harry bezalakoa. Ezina da Harry izatea. Harry bihar iritsiko da. Entzun al didazu? Egun bat gehiago eta... —su eta gar hasi zen totelka—: Harry zurekin ezkonduko da.

Agurearen ahots zorrotz eta eroa sagailaren hasperen sakon eta neurritsuaren gaintik altxatu zen. Sagaila bazirudien uhinurrategiko horma inguruan kiribilkatzen ari zela.

—Horrela egin beharko du. Nik behartuko dut, bestela... —Kapitainak hitz gorri bat jaulki zuen—. Oinordetza kenduko diot, bihar bertan utziko dut ezer gabe eta zuri utziko dizut den-dena. Halaxe egingo dut. Uztazu goseak hiltzen.

Leihoa zalapartaka jaitsi zen.

Harryk arnasa sakona hartu eta urrats bat egin zuen Bessierengana.

—Beraz, zeu zara neska... —esan zuen ahapeka. Bestea ez zen mugitu; alderantziz, mutilarengandik erdi urrundurik geratu zen, aurpegia esku artean ezkututzen zuela.

—Arranopola! —jarraitu zuen Kapitainaren semeak iritxo bat ezpainenetan—. Bat-batean, hemen geratzeko gogo itzela sartu zait...

Bessie soin-dardarka ari zen.

—Astebetetz —bukatu zuen mutilak isilunerik egin gabe.

Bessiek aurpegia eskuetan gorde zuen.

Harryk Bessieren ondo-ondoan jarri eta eskumuturretatik hartu zuen samurtasunez. Bessiek mutilaren arnasa sentitu zuen belarrarian.

—Hau bai istilu gorria, hau... eta zeu zara lagundu behar didana —Bessieren aurpegia ikusten saiatu zen; neskak, ordea, gogor egiten zion. Beraz, neska bakean utzi eta pauso bat egin zuen atzera—. Ba al duzu dirurik? —galde egin zion—. Alde egin behar dut.

Bessiek baietz erantzutera lehiatu zen. Mutila zain geratu zen, beraz, Bessieri begiratu gabe. Oraindik dardarka, Bessie jantziko poltsikoa aurkitzen saiatu zen burumakur.

—Tori —xuxurlatu zuen—. O, alde hemendik! Otoi, alde hemendik! Gehiagorik... gehiagorik banu, den-dena emango nizuke... ahazteko... zuri ahazten

laguntzeko.

Harryk eskua luzatu zuen.

—Lasai. Ez dut inoiz zuetako inor ahaztu. Emakume batzuek dirua baino gehiago eman zidaten... Une honetan, hala ere, eskalea naiz... Zuek, emakumeok, hamaika istilutatik atara nauzue beti.

Egongelako leiho aldera joan eta pertsianatik iragazitako argi ahulpean, ahurrean zuen txanponari begiratu zion. Subirano erdiko txanpona zen. Poltsikoan gorde zuen. Bessiek zutik zegoen, burumakur, zaurituta bezala; besoak luze-luze zintzilikaturik, hilik bezala.

—Ezin nauzu erosi bertan gera nadin —esan zuen Harryk—, eta zeure burua ere ezin duzu erosi, bertatik alde egin dezazun.

Kapela kolpetxo batez jantzi zuen, tinko; ia berehala, Bessiek lurretik altxatzen zela sentitu zuen, besarkada boteretsu bat zela medio. Neskaren oinak lurretik jaso ziren; burua atzerantz erori zitzaion. Grina isil eta menperatzaile batek harturik, Bessieren aurpegia musuz bete zuen, neskaren arimara bertara heldu nahi izango balu bezala. Bessieren masail zurbilak, bekoki sendoa, betazal astunak, ezpain zimelak musukatu zituen; Itsasgoraren kolpe eta zizpuru neurritsuek besarkada boteretsu eta liluragarriari, laztanen indar txundigarriari laguntzen zioten. Itsasoak, herriko etxeak babesten zituen murrua apurtu ondoren, Bessieren bururaino olatu bat bidali izan balu bezala izan zen. Olatua iragan zen; Bessiek urrats bat edo beste atzera egin zuen, soinak hormaren kontra, ahituta (ekaitza baretutakoan eta untzia hondora joandakoan, hara jaurtiki izan balute bezala).

Handik gutxira, Bessiek begiak ireki zituen; eta gerra-saria hartuta aldentzen ari ziren urrats lasai eta trinkoak entzuten zituela, gona txukuntzen hasi zen, aurrera begiratzeari ezin utziz. Bat-batean, atea ireki eta kale huts eta ilunera atera zen.

—Itxaron! —deiar egin zuen—. Itzuli!

Gero, adi-adi geratu zen, ezin jakinik bihotz gainera hain gogor eroritako zarata hura zer ote zen, sagailaren hotsa edo mutilaren pausoen oihartzuna. Hotsak itzaltzen zihoazen —Bessie, poliki-poliki, harrizkoa bihurtzen joango balitz bezala—. Isiltasun izugarriak eragindako beldurra berataz nagusitu zen... heriotzaren aurrean senti dezakegun beldurra baino izugarriagoa. Azken indarrak bildu eta azken aldiz deitu zuen:

—Harry!

Hilzoriko oinhots-oihartzunik bat ere ez. Ezer ez. Tirainaren burrunbak eta itsaso gaiztoaren ahotsak ere bareturik ziruditen. Ez zen hotsik entzuten... ez bizi-zantzurik nabaritzen ere; Bessie, mutilak aipatutako harrizko lurralde hartan bakarrik eta galduta balego bezala; aurkikuntzei bizkar ematen dieten gizon eroek zeharkatzen duten lurraldearen minean, betiko galduta geratu izan balitz bezala.

Hagberd kapitainak, etxe ilunaren barruan, zelatan jarraitzen zuen. Leiho bat ireki zen, eta harrizko lurraldearen isiltasun minean, ahots batek hitz egin zuen Bessieren buruaren gainetik —haize beltzean ederki nabarmenduz—... Zorotasunaren ahotsa, gezurren ahotsa, etsipenaren ahotsa... itxaropen itzaliezinarene ahotsa zen.

—Mutil berri-emaileak... zera... alde egin al du? Entzuten al diozu hortik, maitea?

Bessie andereñoak negarrari eman zion.

—Ez! Ez! Ez! Ez diot entzuten —esan zuen negar-zotinka.

Kapitaina barrez hasi zen oilaloka moduan, garaile.

—Ikaratu egin duzu. Zu bai neska ausarta, alajaina! Ez egon urduri, maitea. Egund bat gehiago.

Beste etxean, Carvil agureak, aulkian patxadaz eserita, alboko mahaiaren argia piztuta, ahots gaiztoaz hasi zitzaion oihuka:

—Bessie! Bessie! Aizu, Bessie!

Orduan, Bessiek entzun zion; eta patuak garaituta bezala, etxetzat zuen ifernu txiki eta itogarrira kili-kolo itzultzen hasi zen, isil-isilik. Etxea ez zen atari handikoa, bertan behera utzitako itxaropenei buruzko inskripziorik ez zuen... Bessiek ezin zuen ulertu zein bekatu egina ote zuen.

Hagberd kapitaina, goian, gero eta zalapartariago jokutzen ari zen, zorion hutsez.

—Sartu etxean! Zaude isilik! —buelatu zitzaion Bessie beheko atetik, harmailan zurrupitean negarrez.

«Gaizki zebilen hartatik» onik atera eta gero, Kapitaina neskaren aginpidearen aurka matxinatu zen. Bessieren bihotza ikaraz betetzearren, bere itxaropen ustela oihuka aldarrikatzen zuen agurearen ahotsarekin batera, munduko zoratasuna lehertu izan balitz bezala, izan zen.

AMAIERA